

Pablo Atela eta Izaskun Etxaniz
Itsas Museoko zuzendaria eta zuzendariordea

“Itsas kultura gure inguruan zabaltea da helburua”

Ana Galarraga Aiestaran

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



A. GALARRAGA

Ría de Bilbao Itsas Museoak bisitarientzat ateak ireki aurretik egin dugu elkarrizketa hau. Museoan bertan genuen hitzordua, eta iritsi orduko konturatu gara benetan toki berezian dagoela.

Hasteko, Museo bisitatzeko aukera izan dugu, kanpotik eta barrutik, eta, ondoren, Pablo Atelak eta Izaskun Etxanizek adeitasunez azaldu dizkigute hango xehetasun guztiak.

Oraintxe zabaldu duzue Museoak.

Zein helbururekin?

Helburu nagusia itsas kultura gure inguruan zabaltea da. Kontuan izan behar da toki honetan, Euskalduna ontzioletako kai zaharrean, mendeetan zehar metatzen joan den ondare ikaragarri bat dugula. Egia da azken garaiotan garrantzia galtzen joan dela, baina, hala ere, ondare hori Bilboren, Bizkaiaren eta Euskal Herriaren nortasunaren parte da.

Helburua ondare historiko eta kultural hori gordetzea eta zabaltea da, eta, horrekin batera, gaur egungo errealitatea ere erakutsiko dugu. Izan ere, orain ere itsasoak pisu handia du Euskal Herrian, baina beste ikuspuntu batetik bizi dugu: industria-jarduerak jarraitzen du eta, aldi berean, aisialdiarekin lotutako jarduerak indarra hartu dute.

Bisaltaldian argi gelditu zaigu jendearen parte-hartzea bultzatu nahi duzuela, ezta?

Halaxe da. Ikusi ahal izan duzuen bezala, museoa erabat irekia eta integratzailea izatea nahi dugu. Horregatik, museoaren zati eta jarduera nagusietako bat tailerrak dira. Ezin dugu ahaztu non gauden. Hain zuzen ere, museoa ontziola garrantzitsuenetako bat egon zen lekuan dago, eta horrek ontzigintzari bultzada bat ematera behartu gaitu, oraingoan helburu hezitzaile eta kulturalarekin, besterik ez bada ere. Nolabait, bizi dugun errealitatera moldatu nahi dugu jarduera hori, eta jendeari parte hartzeko aukera eman, nahiz zuzenean –modelismoko, arotzeriako edo ontzigintzako tailerretan parte hartuz– nahiz nola lan egiten duten ikusiz soilik.

Tailerrak museo parte-hartzaitzat ulertzen dugunaren adibide dira, baina beste jarduera batzuk ere jarriko ditugu martxan, bisitariak itsasoaren eta ontzien iraganean eta etorkizunean esku hartzera bultzatzeko asmoz.

Nabarmena da, bestetik, itsas museoaren kokapena ez duzuela alirizira aukeratu...

Noski. Horretan zorionekoak gara, iragan zoragarri bat izan duen tokian baikaude eta,aldi berean, Abandoibarrak pisu handia izango baitu Bilboren etorkizunean; iragana eta etorkizuna batuta gure alde ditugu. Iraganeko are gauza gehiago gorde izan balira, hainbat hobe, baina ez gaude kexatzeko moduan: Ponpa-etxola, Carola garabia eta dikeak gorde dira, horietako bat XIX. mendearen erdialdekoa. Hain justu, ontzigintza eta konpontze-lan zibiletarako lehenengo dikea izan zen Espainian. Beraz, ondare izugarri aberatsa jaso dugu.

Batzuetan, ondarea berreskuratzeko hainbat lan egin behar izan ditugu; adibidez, aipatutako dike hori lurperatuta zegoen. Itsasontziak handitzen hasi zirenean, ez ziren dikean sartzen eta zabalago bat egin behar izan zuten. Guk dike zaharra indusi eta erabilera kulturalerako berreskuratu dugu.



Tailerren bidez, ontzigintzaren sekretuak erakustez gain, jendeari parte hartzeko aukera ematen dio museoak.



Titan, 1923an Herbehereetan, egindako draga, museoeko bildumaren ontzi berezietako bat da. Orain, draga hau berritzen ari dira.

Bestetik, hemen egoteak badu beste abantaila bat: gurearekin zerikusirik ez duten gaiei buruz ospe handiko museoak ditugu inguruan: Guggenheim Museoa eta Arte Eder Museoa. Euskalduna Biltzar Jauregia ere ondoan daukagu. Horri esker, bisitari-kopurua handia izatea espero dugu, museo erabat desberdinak izanik osagarriak baitira. Baina, batez ere, ikaragarritzko balio sinbolikoa du leku honek, hemen bertan aritu baitziren honetan lan egiten zutenak.

“ikaragarritzko balio sinbolikoa du leku honek, hemen bertan aritu baitziren honetan lan egiten zutenak”

Nori zuzenduta dago Itsas Museoa?

Museoa denentzat dago irekia, noski. Hala ere, umeei eta esperientzia hau bizi izan duten helduei zuzenduta dago gehienbat. Izan ere, umeei ez dute gure herriaren historiaren alderdi hau ezagutu, eta, gure ustez, garrantzitsua da errealitate honetaz jabetzea, beren iraganaren zati bat baita. Eta historia hori gertutik bizi izan dutenak, berriz, identifikatuta sentituko dira. Era batera edo bestera, adin-tarte batean, ia denek izan dute itsasoarekin zerikusia izan duen norbait hurbil: aita, aitona, osabaren bat... Horregatik, itsas historia gogoratzea garrantzitsua da, ez bakarrik herriaren nortasunaren aldetik, baita gizatasunaren eta sentimenduen aldetik ere.

Beste era bateko bisitariarentzat ere prestatu dugu museoak. Itsasoko edo museologiako gaietan sakondu nahi duen edonori zerbitzua emateko, liburutegi bat egongo da hemen. Museoeko sarrera ordaindu gabe sartu ahal izango du kontsultaren bat egin nahi duenak, eta liburuak eta

dokumentuak maileguz emango ditugu. Halaber, gela bat prestatu dugu tesiak edo proiektuak egiten ari diren iker-tzaileentzat, lana lasaitasun osoz egin ahal izan dezaten.

Lantegiak, liburutegia... zer gehiago eskaintzen du museoak eta nola dago banatuta espazioa?

Museoak bi espazio ditu: kanpokoak, 20.000 m²-koa, eta barrukoak, 4.500 m²-koa gutxi gorabehera. Barruan, tailerrak alde batera utzita, hiru ardatzen inguruan banatu dugu tokia. Lehenengoa "Itsasadarra, itsas portua" da, eta itsasadarren bilakaera historikoa azaltzen du. Bigarrenean, "Itsasadarra, merkatua eta lantegia" izenekoa, historian garrantzi gehien izan duten jarduerak eta errealitate ekonomikoa eta soziala agertzen da, eta hirugarrenean ontzigintza dago ikusgai, hasierako zurezko ontzigintzatik hasi eta gaur egun-gora arte. Hori guztia, zubiaren azpiko eraikinean.

"Euskal Herrian, gurea da mota honetako lehenengo museoa, eta, horregatik, kanpokoekin harremana izatea oso garrantzitsua da guretzat"

Baina, beharbada, kanpoko espazioa da bereziena. Izan ere, gure bildumako ontziak lehenengo ontziolako hiru dikeetan daude. Bisitariak dikeetara jaitsi eta ontzietara sartu ahal

eMarCon, itsas museoak elkarrekin sarean

Ría de Bilbao Itsas Museoak eMarCon izeneko proiektuan parte hartzen du. Izena Itsas Kultura Eduki Elektronikoa-ren akronimoa da, eta Europako Batzordeak finantzaturako egitasmo bat da. Helburua geografikoki urrun dauden museoak eta haien bisitariak hurbiltzea da. Horretarako, Internet bidez erakusketa birtualak egitea ahalbidetuko duen software bat sortzeko asmoa dute. Gainera, datu-base bera izango dutenez, itsas ondare digitala partekatuko dute.

Egitasmo horretan, Europako zazpi herrialdeetako bederati erakundek hartzen dute parte. Horien artean lau museo daude: Alemaniako Bremerhaven-go Itsas Museoa, Lisboa-koa, Poloniako Gdansk hirikoa eta Bilbokoak. Horietaz gain, erakunde akademikoek eta informatikan eta teknologia berrietan lan egiten dutenek osatzen dute taldea. Hala ere, guztien nahia denborarekin museo gehiago biltzea da, eta denen artean sare osatu bat sortzea.

Informazio gehiago:

http://www.emarcon.net/index_baq.html



Museoaren espazio bereziena kanpoan dago, han baitaude Carola garabia, ponpa-etxola, dikeak, ontziak eta ontziola zaharretik gorde diren gainerako elementuak.

© FUNDACIÓN MUSEO MARÍTIMO RÍA DE BILBAO
RÍA DE BILBAO ITSAS MUSEOA FUNDATZIOA

izango dute. Ontzi bakoitzaren barruan ontzi-mota horretan egiten diren lanak azalduko dira, eta baita han lan egiten zutenen bizimodua ere.

Horretaz gain, Carola garabia eta ponpa-etxola ditugu kanpoan, eta bestelako elementuak ere badaude: buiak, aingurak... Berez, aldi baterako erakusketentzako tokia barruan dagoen arren, inoiz toki gehiago behar izanez gero, kanpoan ere jar dezakegu erakusketaren bat.

Beraz, erakusketa iraunkorraz gain, aldi baterako erakusketak antolatzeko asmoa ere baduzue...

Bai. Era honetako beste museoekin oso harreman ona dugu, eta elkarrekin proiektuak egiteko asmoa dugu, ez bakarrik gure bildumetako elementuak trukatzeko edo elkarri uzteko, baita bestelako proiektuak aurrera eramateko ere.

Euskal Herrian badaude beste itsas museo batzuk, adibidez, Bermeokoa, Donostiako Ontzi Museoa, Plentziakoa, Donostiako Aquarium-a... Baina beste era batekoak dira. Euskal Herrian, gurea da mota honetako lehenengoa, eta, horregatik, beste herrialdeetako gainerako museoekin harremana izatea oso garrantzitsua da guretzat.